

## IPUIN-SARIKETA

– Kaixo, nondik zatoze? Galdetu eutsen Matxintxok.

– Urrunetik oso urrunetik. Erantzun eutsen kapitaina zanak.

– Ikusi al dozuez nire aita eta osaba zatozien lur eremu urrunetatik? Bota eutsen Matxintxok.

– Ez ume, gu gatozen lekuetan ez doguz zure aita eta osaba ikusi. Esan eban kapitainak.

– Nola dozu izena?

– Nik Matxintxo, eta zuk?

– Ni, William Drake deitzen naiz. Bota eban kapitainak itz egiteko azentu arraro bategaz.

Eta orrela joan dira, beste geiago barik? Alkateak.

– Ez, neuri be eurokaz joateko eskatu deustie, baina ezin nebala ama bakarri utzi esan ostean, bakean utxi eta alde egin dabe.

– Baina zelan otu aal jako alako zeozer ume kokkor bati? Erria zoritxar batetik salbatu dozu. Ez dakigu zelan eskertu egin dozuna, -esan eban alkateak.

– Matxintxok bitartean... Baina alkate Jauna, guzurrik ez dot esan. Erria ez al dago gaixorik? Danok ostendu zarie. Inork ez dau aurpegirik emon. Beldurra nagusitu jako berbeari eta mututasuna biurtu da jaun eta jabe. Ez al da isurritea bezain gaixotasun txarra, beldurra?

Alkateak ez ekian zer esan. Mutu egoan mutikoaren arrazoien aurrean.

– Zu zara beldurrik erakutsi ez dauan bakarra, gaixotasunik bakoa, osasuntsua, eta orrek salbatu gaitu. Esan eban negar malkotan alkatearen ondoan egoan andratxu batek.

– Konfidantza izan bear dogu geure buruarengan, ezin dogu fedea galdu eta utsune ori beldurrez bete. Erri onek asko sufritu dau eta geure artean ez dagozanakatik adoretzu jokatu bear dogu, adore ori beraiei zor deutsegulako... esanaz, Matxintxori negarrak urtetan eutsen.

Arrazoa du gazte onek, -esan eban bai batak eta besteak. Gure artean ez direnen izenean mintzatu da, -esan eban beste batek.

Matxintxoren esanak kontuan artu ziran, eta beldurra zorientasunagatik ordezkatu zan. Eguzkia joaten zan bokatzean, jende ugari egoten zan begietan dirdira sakon bategaz itsasoari begira. Falta zirenen oinazea, itsasoak berak leuntzen eutsen. Itsasoaren berbak entzuten ikasi eben. Orduan, eta bakarrik orduan, askatu ziren barruan eroien pisu astun aretaz.

**Asier Legarreta Legarreta**

## ORTZIAN

Egunsenti ederra agertu zan ortzian, lilluraz jantzirik, a zan bikaintasuna... urdintasun guztia izarrez beterik.

Gabaren gau erdian zeru-lurrak ixilik aunditasunpean, ta izar doatsuak Jaungoikoa gorensten edertasunean.

Lurra zerura adi izar edertasunez erdi zoraturik, a zan eder-giroa maitasun gozoenaz guztia ondurik.

## JAKINTZA

Jakintza bikaiña da zelai orlei artean dizdiz ederretan, jakintzak urrea dau eguzki oriaren printza alaietan.

Jakintza zabal zabala itxas urdiñez dago edertasunetan, jakituri almenez aidean aurkitzen da urrezko aizetan.

Itxasoa gogo onez janaria eskeinka aurkitzen da b

**PAULIN**